

Herri Aldizkaria

otomotz

2006ko otsaila 114. alea




Gazteak non, garitoak han
Modako fenomeno honi buruz solasean

KOLABORAZIOA: ANDONI SALAMERO

ELKARRIZKETAK: ANTZIÑE BIAIN - BENITA LANDA - XABIER BARRIOLA

IZERDI PATSETAN: GORKA QUEVEDO, DESERTUAN KORRIKA

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako
mintegiak



Biltegien kudeaketa informatizatua eta eraginkorra

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren
Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Zein da **egungo biltegien kudeaketaren egoera?**
Zeintzuk dira **hobetzeko aukerak?** Zer lor dezakegu
merkatuak eskaintzen dizkigun tresnak egoki erabiliz
gero? Nola lortu **etengabeko inbentarioa** izatea **irteeren**
eta **sarreren erregistro** zorrotzarekin?

Urola Garaia
martxoak 16
ZUMARRAGA
Urola Garaiko Fundazioa
(UGLE)

Orduategia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314


www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Antolatzailea:



Miramón
Enpresa Digitala

ARGAZKI ZAHARRA



1928an herriko futbol talde bati ateratako argazkia.

Zutik, ezkerretik eskubira: Castor Ormazabal, Fidel Okariz, Jose Gabilondo, Antonio Dominguez, Cipriano Gorospe, Angel Gorospe, Francisco Alvarez eta Paco Sarralde.

Makurtuta, ezkerretik eskubira: Laureano Mendia, Mariano Gabilondo, Lazaro Aierbe eta Jose Aranburu.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.



Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

2006ko otsaila

KLIK ETA KLIK



KLIK ETA KLIK



Hilabete honetako argazkiak Josu Perezek atera ditu.

Zer dela eta ugaldtu dira

Garitoena azkenaldian zeresan handia ematen ari den kontua da. Hasieran deigarria zen gazte batzuek lokala edo garajea bertan euren txokoa prestatzeko alokatzea, baina egun herriko ia kale guztietan dago garitoren bat. Zer dela eta ugaldtu da horrenbeste fenomeno hau? Zer nolakoak dira

garitoak barrutik? Zer egiten dute bertan? Galdera hauetara eta beste batzuei erantzuteko, Urretxuko Iparragirre kaleko bi garitotan egon gara. Bi herriotako Gizarte Zerbitzuetako zinegotziekin eta Marisol Garin psikologoarekin ere hitz egin dugu gai honi buruz.



“Kalean hotz egiten duelako eta guretzat ez dagoelako ezer alokatzen ditugu lokalak”

Virginia Peña, Eneritz Garcia, Nerea Nuñez, Maialen Dueñas, Ana Gajete, Leire Alfonso, Aintzane Antia, Beatriz Calvo eta Karen Gutteridgek 15-16 urte dituzte eta koadrila berekoak dira. Guztiek La Salle ikastetxean ikasten dute, batzuk DBHko 3. mailan ari dira eta beste batzuk 4. mailan. 2004ko urrian alokatu zuten lehenengoz lokal bat, Orbegozoko aldapan, baina 2005eko Errege Bezperan Iparragirre kalea joan ziren. "Bestea oso hurrin zegoelako aldatu genuen garitoz".

Horretarako, inmobiliariara joan ziren. Hori da ohikoena, inmobiliarietara jotzea alegia. "Garito bat prestatzeko lokalik zegoen galdetu genuen eta hau bakarrik zegoela esan ziguten. Izan ere, toki askotan ez dituzte gazteak nahi". Gure solaskideak gustura dira euren lokalarekin. "Prezio ona du eta, gainera, herri erdian dago. Txikia da, baina moldatzen gara".

Alokairuaren zenbatekoaz, koka-penaz eta tamainaz gain, segurtasunari ere

garrantzia ematen diote. Ez da harrizkoa. "Kristala hautsi eta genuen ia guztia lapurtu zuten: telebista, irrati-kasetea, DVDa...". Lapurrek eramandakoa ia garito guztietan aurkitu daitekeena da. "Lehenengo gauza sofak jartzea izaten da: lagunenak edo senitartekoak edo jendeak botatakoak. Telebista eta irrati-kasetea ere ia lokal guztietan izaten dira", diote neskek.

Luxuzkoak ere ba omen daude. "Batzuen eta besteen arteko alderik handie-

horrenbeste garitoak?

na tamaina da. Batzuek hozkailua, mikroondasa, home-cinema... dituzte. Etxean bezala, baina garbigailurik gabe. Segurtasunari dagokionez, lokal batzuetan pertsiana dute. Guk ere hartuko genuke..."

Telebista ikusi, musika entzun... Zer edo zer gehiago egiten al dute gazteek garitoetan? Zergatik ugaldtu dira horrenbeste? "Kalean hotz egiten duelako eta guretzat ezer ez dagoelako alokatzen ditugu lokalak. Joko-areto bat egotea ondo legoke.

"Batzuek hozkailua, mikroondasa, home-cinema... dituzte. Etxean bezala, baina garbigailurik gabe"

Hitz egiteko, mahai-jokoetan aritzeko, denbora pasatzeko... elkartzeko gara. Afariak ere egiten ditugu eta koadrilakoen urtebetetzeak bertan ospatzen ditugu".

Iparragirre kaleko lokaleko neskek denbora libre ia guztia bertan ematen dute. "Tarte bat dugun bakoitzean, etxean aspertuta gaudenean... etortzen gara. Aisialdi denbora guztia edo ia guztia bertan ematen dugu. Egunean lau bat ordu pasatzen ditugu. Larunbat gauetan bakarrik joaten gara tabernetara. Kalera irten ordez, garitora etortzen gara. Gure bigarren etxea da". Eta lehen etxean zer diote?

"Ez die grazia handirik egiten, baina onartu beharra dute", diote neskek.

Horrenbeste denbora garito barruan... txoko hauek koadrilaren arteko harremana oztopatzen dutela pentsa daiteke. "Garitotik garitora ibiltzen gara, gaintzeko lagunei bisita egiten. Lokala dugun jendearen artean harremana dago. Gure ondoan mutil batzuk daude eta beraiekin ere harreman ona dugu".

Nesken artean ere ez omen dira arazoak sortzen, nahiz eta oso toki txikian elkarrekin ordu asko ematen dituzten. "Bakoitzak bere giltza dauka eta nahi duenean etortzen da. Bisitak lasai asko ekar daitezke". Arau bakarrak, garbiketaren ingurukoak dira. "Zerrenda bat prestatu

dugu eta hilero hiru lagun arduratzen dira garbiketaz. Alokairua ordaintzera ere txandaka joaten gara".

Lokalaren jabearekin, bizilagunekin... harreman ona dutela diote neskek. "Badakigu garitoez ez dutela oso ospe ona, baina gure artean ere denetik dago. Noizbait musika altuegi dugula esan digute, baina bizilagunekin eta Udalarekin ez dugu arazorik. Dena den, jendea ez da fido eta zaila izaten da lokala lortzea".

Hala, bost solaskideek ez dute eurena uzteko asmorik. "Ez dakigu hemendik urte batzuetara zer gertatuko den, baina oraingoz tabernetara joatea eta garitoan egotea gustatzen zaigu. Ez dugu uste utziko dugunik".



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

HILABETE HONETAKO GAIA

“Gurasoek ondo ikusten dute, nahiago dute lokala izatea kalean aspertuta ibiltzea baino”



Neskenaren ondoan beste garito bat dago. Bertan, 17-18 urteko mutilak elkartzen dira. 16 lagun dira, baina bostekin izan gara: Gregorio Cibrian, Xabier Segurola, Aitor Mendia, Asier Gonzalez eta Mikel Morillas. Batxilergoko 2. maila ikasten ari dira, batzuk UGLEn eta besteak Lizeoan.

Koadrila hau aspaldi saiatu zen lokala lortzen, baina iaz arte ez zuen lortu. "Hiru edo lau urte generamatzan lokal baten atzetik, baina ez genuen lortzen. Senitartekoren edo lagunen batek lokalik ez badu, oso zaila da. Inmobiliarietara, kalean ikusten genituen telefonoetara... deitzen genuen, baina alferrik. Bakarrak eman zigun baiezkoa eta 80.000 pezeta eskatu zizkigun... Ez dituzte gazteak nahi euren lokaletan, baina neskak errazago onartzen dituzte. Arduratsuegok omen dira. Bestalde, zenbat eta zaharragoa, orduan eta errazagoa da lokala lortzea. Gu

14 urterekin hasi ginen bila eta jendeak aurpegira barre egiten zigun".

Azkenean, ezagun batzuen eskaintza jaso zuten. "CCOO sindikatuaren taberna zenean daude eta, oso lokal handia denez, 150 metro karratu ditu, sartzea proposatu ziguten. Bakoitzak bere gela zuen eta gela amankomunak ere bazeuden. Iazko otsailean sartu ginen, baina ez geunden gustura eta utzi egin genuen".

“Udan ondo moldatzen ginen, baina neguan gaizki. Geroz eta gutxiago irteten ginen”

Bigarren garitoaren bilaketan, zortea izan zuten. "Hemen zeuden neskak ezagutzen genituen eta, lokal hau utzi behar zutela jakin genuenez, hona etorri ginen. Oraingoz oso gustura gaude. Eroski gertu dugu, festa girotik gertu dago... Dena den, kokapena baino garrantzitsuagoa da alokairuaren prezioa. Guk 300 euro ordaintzen dugu, nahiko kostata. Urruti dagoen lokalera joatea alokairu garestia ordaintzea baino errazagoa da".

Alokairuen prezioak eutek nahi baino garestiagoak diren arren, mutilek oso argi zuten garittoa beharrezkoa zutela. "Udan ondo moldatzen ginen, baina neguan gaizki. Geroz eta gutxiago irteten ginen. Zinea oso garestia da eta askotan etxetik etxera ibiltzen ginen, baina ez da plana. Bestalde, arratsalde osoa tabernetan ematea ez zaigu gustatzen, aspertu egiten gara. Gaztetxea badago, baina gure ustez

HILABETE HONETAKO GAIA

politika sartuegia dago eta, gainera, taberna baten antzerakoa da eta ez dago intimidaderik. Gau Giroan programaren barne antolatzen diren jarduerak ondo daude, baina alferkeriagatik ez gara joaten. Gainera, hor ere ez dago intimitaterik".

Iparragirre kalean elkartzen diren mutilek garrantzia handia ematen diote intimitateari. Baina, zertarako behar dute? "Hitz egitera, lagunekin edo neskarekin egotera, pelikularen bat ikustera, Play-Station-en jokatzera... etortzen gara. Nesken kontuarekin ondo konpontzen gara, neskarekin beste inor ez dagoenean etortzen gara".

Asteburutan elkartzen dira batez ere. "Asteburuetan arratsalde osoa bertan

ematen dugu. Bestalde, ostiral gauetan pelikularen bat ikusteko ohitura dugu. Astegunetan, berriz, ahal dugunean etortzen gara; baina ez arratsalde osoa pasatzen. Etxean aspertu beharrean, lagunengana etortzen gara".

Nahiz eta jende asko elkartzen den, ez omen dute arauen beharrik. "Apu bat zentzudunak izaten saiatuz gero, ez da araurik behar. Argi dago, adibidez, gauzak ezin direla nahita puskatu. Garbiketari dagokionez, txandatzen saiatzen gara. Dena den, lokala zikina dagoela nabaritzen dugunean, une horretan gaudenok garbitzen dugu eta kitto".

Mutil koadrilak etxe batean aurki daitekeen ia guztia du garitoan: telebista,

DVDa, bideo-kontsola, irrati-kaseta, hozkailua... "Etiket har zitekeen guztia ekarri dugu. Gurasoek ondo ikusten dute, nahiago dute halako lokala izatea kalean aspertuta ibiltzea baino. Gure ustez kalean istilu gutxiago daude garitoak daudenetik".

Kontu honetan ere dena ez da ona, noski. "Dakigunez, koadrila batzuetan elkarbizitza arazoak sortu dira eta bizilagunek alokatutako lokaletatik bidalitako koadrilak ere badira. Errespetua oso garrantzitsua da, argi dago goizeko ordubietan ez dela musika altu jarri behar, esaterako. Dena den, denetik dago: garito txarrak eta baita bizilagun txarrak ere. Elkartzeko eta lasai egoteko tokiak dira, baina gero bakoitzak jakingo du zertan ematen duen denbora bertan".

Udal ordezkariak kezkatuta ageri dira

Garitoen kontuak Udalean ere kezka sortu du. Izan ere, gazteek eurentzako nahikoa eskaintza faltan somatzen duten seinale da eta, gainera, lokal hauen egoera ez da legezkoa. Rakel Blanco eta Itziar Agirre gizarte zerbitzuetako zinegotziekin hitz egiten izan gara gai honi buruz.

Bi zinegotziek aipatu dutenez, Udalek 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzako gunea ireki nahi dute herri erdialdean. "Udan hiru amek idatzitako gutun bat iritsi zen Zumarragako Udaletxera nerabeentzat baliabide gehiagoren eske. Prebentzio arloan lanean ari gara eta eskaera horri erantzuna eman nahi diogu. Bi herriotako Kultur, Gaztedia eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak ari gara lanean: Aldundiko jendearekin hitz egin dugu eta lokal baten bila ari gara. Zerbitzu berria Beasaingo Gazte Gunearen antzekoa izango da".

Udal arduradunen iritziz, egokiena alternatiba eskaintzea da beraz. "Gure ustez, onena gazte guztientzat lokal bat egotea da. Beste gauza batzuk ez daudelako sortu dira garitoak. Hauetara joan beharrik ez izateko, aukera bat eskaini nahi dugu". Zintzo-Mintzoren Gazte Lokala eta Gaztetxea badituzte, ordea. Agirrek eta Blancok ere argi dute gazteek ez diotela hain erraz utziko garitoak irekitzeari eta zenbait aholku eman nahi dituzte. "Bai gazteak eta bai eruen gurasoak arduratsuak izan behar dira

eta arriskuak gutxitu behar dituzte, suitzalgailuak jarri adibidez".

Kontuan izan behar da garitoak legez kanpo daudela. "Gure batzordeetara etortzen diren batzuk itxi egin beharko liritekela esaten dute, baina gauza onak ere badituzte. Autonomia lantzeko balio dute, baina legez kanpo daude. Gurasoek hori oso argi izan behar dute, eurek izaten baitira seme-alabentzat lokalak alokatzen dituztenak, izena ematen dutenak. Zer edo zer gertatuko balitz, eurak lirateke arduradunak".

Udal askotan dituzte buruhausteak gai honen inguruan. "Erregulazioa oso zaila da. Berez, garitoek aktibitate lizentzia beharko lukete eta herriren batean gai honen inguruko ordenantza atera dute, betebeharreko gutxieneko baldintzak zehaztuz".

Urretxu eta Zumarragako zinegotziek ez dute uste hori irtenbidea denik. "Ordenantza egitea ez da erraza: zer baldintza jarri behar dira? Garajeek elkartzeko toki bezala balio al dute? Ez dute bentilaziorik, ezta komunik ere, baina bertan biltzea debekatuko bagenu gazte asko kalera joango lirateke. Gainera, sarritan ordenantzak egin eta gero ez dira betearazten".

Udalek ez dute oraingoz eskuhartzeko asmorik, baina Urretxukoak garito bat itxi beharra izan du dagoeneko. "Lokal horretako gazteek istiluak sortzen zituzten, herritar batzuek eruen kexa helarazi zuten eta ixtea erabaki genuen".



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2006ko otsaila

HILABETE HONETAKO GAIA

Marisol Garin: "Gurasoek lokalaren baldintzen, bertan egiten dutenaren... berri izan behar dute"



Marisol Garin psikologoa duela urte asko hasi zen Ikastolan eta Lizeoan haur eta gazteekin lan egiten. Hala, garittoa duten gazte asko umetatik ezagutzen ditu eta arazo honen inguruan sakon hausnartu du. Bere ustez, kontu honek, denak bezala, alde ona eta txarra du: ematen zaion erabileraren araberakoa.

Garinek garittoa irekitzen hasi zirenean hezitzaileak beldurtu zirela onartzen du. "Hasieran, garajeetan, herriaren erdialdetik urrun, toki marjinaletan... ireki ziren eta oso gaizki ikusten genuen. Gurasoek alokatzen uztea harritu egin gintuen, baina denborarekin ohitu egin gara. Egun baju onak ere hartuta daude eta hori ezkutuan egotea baino hobea da; horiek egokitasun eta higie aldetik hobeto baitaude".

Hezitzaileen ustez, normala da gazteek euren txokoa nahi izatea. "Beraientzat lokala izatea beharra bihurtu da. Adin horretan inguruan heldurik gabe egoteko beharra dute, kontrolatu gabeko espazioa eta eurek kudeatzen dutena. Horrek ez du zertan txarra izan behar, ondo antolatuz gero".

Garitotetan elkarteak eta gazteek beste garai batzuetan egiten zituztenak ez omen dira hain ezberdinak. "Lehen lursail batera joaten ziren txabolak egitera, jokoreto zegoen, gure garaian lokalak alokatzen genituen *guatekeak* egiteko... Udalen alternatibek ez dute balio, horietan beti baitago norbait gazteen jardueraren kontrolatzen".

Marisol Garinek hainbat abantaila ikusten dizkio oraingo modari. "Lokala

itxuratzeke egiten duten lana polita da, sormenerako, ardurak hartzeko eta taldean lan egiteko toki interesgarriak dira...". Dena den, gurasoak gainean egotea ezinbestekoa omen da. "Garitotako gazteen gurasoek lokalaren higiearen, baldintzen, bertan egiten dutenaren... berri izan behar dute. Beraiekin hitz egin behar dute eta aholkatu. Bestalde, seme-alaben ordutegi berri izan behar dute. Kontratuak eurek sinatzen dituzte, baina ez dakigu gero bertan gertatzen denaren jarraipena egiten duten. Ondo funtzionatzen dutenak nagusien jarraipena dutenak dira".

Garinen ustez, nerabeak euren kasara uztea arriskutsua izan daiteke. "Gorabehera handiko adina da. Nerabeak gauza eta egoera guztiak kudeatzen dakie la uste du, baina beranduago konturatzen da hori ez dela hala. Bestalde, ondo dago gazteek euren tokia izatea, baina arau eta muga batzuen barne. Dena dakitela uste dute, baina erantzunkizunak ere erakutsi behar zaizkie".

Adituen ustez, gazteek garitotara denbora asko pasatzea txarra izan daiteke. "Etxea ordezkatzeko gerta daiteke. Erabilitako gauzak edo sobran daudenak eramatea ondo dago, baina etxeko gauzak bertara eramatea ez da ona. Gazteak babesa behar du eta lagunartean hori lortzen du, baina helduen mundutik ihes egitea txarra da. Bestalde, adin batean pasibotasun arriskua dago eta garitotara hori bultzatzea dezakete. Gazteek beste jarduerara batzuk ere izan behar dituzte".

Marisol Garinek zenbait arazoren berri izan du. "Lokal batzuetan ez dute kanpoko inor sartzen uzten, ezta kale hezitzaileak ere, nahiz eta hauek gazte horien ezagunak diren. Badakigu lokal batzuk oso gaizki kudeatuta eta zikinak daudela, gazte batzuk klase orduetan garrantzitsuak joaten direla...".

Hezitzaileek eta Udaleko ordezkariak gai honetaz hitz egin dute dagokeneko. "Udala ere kezkatuta dago. Askotan garajetan daude eta hauek ez dira horretarako. Zer edo zer gertatuko balitz, nork erantzun luke?".

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Zer iritzi duzu garitoez? Baten bat ezagutzen al duzu?



Mari Mar Prieto

Ez daukat garitorik etxe ondoan, baina badakit asko ugaldutik direla. Ondo iruditzen zait horiek sortzea. Izan ere, kalean okerrago ibil daitezke. Lokal hauetan filmak ikusten dituzte, bideo-jokoetan aritzen dira... Ondo portatzen diren bitartean... Erabileraren arabera, onak edo txarrak izan daitezke.



Marga Barriento

Primeran iruditzen zait. Non sartu badute behintzat. Tabernetan baino hobeto daude. 15 eta 16 urteko alabak ditut eta garitoei alokatu dute koadrilakoekin batera. Ordutik, lasaiago nago. Lokala bera ikusi dut eta ondo dago: musika aparailua, bideoa... dute. Alabek batzuetan bertara gonbidatzen naute.



Rikardo Babarro

Etxe inguruan bat jarri dute. Betidanik gazteek euren modura antolatu nahi izan dute, naturala da. Herrietan, egia esan, ez dago horretarako aukera handirik. Horren isla dira garitoeak. Ez dagoenez ezer araututa, badakit arazoren bat edo beste egon dela. Gorakada egon da gazteen artean eta gero eta lehenago alokatzen dituzte.



Mila Alberdi

Beno, ondo erabiltzen badute, errespetuz, ez dago arazorik. Gazteek ere nonbaiten egon behar dute. Nire ilobak garitoei du, baina ez du horri buruz asko hitz egiten. Gure etxe inguruan ere badugu eta badakit bizilagun batzuk, zarata dela eta, kexatu egin direla.

Muntaketa eta Instalazioen Enpresa
HERCE
Elektrikistak, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantentua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA

Jaurretu
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**Denda alokatu edo
saltzen da Antzuolan**
Martxan dagoen
argazkidenda-bitxitegia

943 78 70 66
635 757 271

ETXABURU
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurria


☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Antziñe Biainen lehen u

Asier Okarizekin batera zuzendu duen 'Susi' la

Antziñe Biain eta Asier Okariz herritarrek *Susi* laburmetraia estreinatuko dute igande honetan Donostiako Guardetxea lokalean. Filma honetan beste lau herritarrek ere parte hartu dute: Oihane Zabaleta ekoizpen lanetan aritu da eta

euskarazko azpitoluak prestatuko ditu, Iker Alvarez musikaz arduratu da eta Pablo Alvarez eta Estitxu Sudupek aktore lana egin dute. Antziñe Biainekin hitz egiten izan gara euren laburmetraiari buruz.



Erratsa zinema munduan Laburmetraia igandean estreinatuko da Donostian

Nolatan otu zaizu laburmetraia egitea?

Zinea izugarri atsegin dut eta gidoiak idazten saia nintekeela pentsatu nuen. 2000 eta 2002a bitartean lau gidoi idatzi nituen, baina ezin nituen lehiaketetara aurkeztu: luzemetraia gidoientzako edota dagoeneko eginda dauden laburmetraientzako lehiaketak soilik daude. Hori dela eta, hainbat ikastaro eta bizpauru laburmetraia egin dituen Asier Okarizekin harremanetan jarri nintzen. Nik idatzitakoa gustatu egin zitzaion eta lanean hasi ginen.

Lan polita izan al da?

Abentura oso polita izan da. Lehen egin beharra teknikariak eta aktoreak lortzea izan zen. Teknikari gehienak ikasleak dira eta aktoreak, berriz, maila onekoak dira. Txakur txikirik ezin geniela eman azaldu genien eta oso ondo portatu dira. Ekipo teknikoa, berriz, Ategorrietako Larrotxene Kultur Etxeak utzi digu. Zailena grabaketa egiteko guztioi ondo zetozkigun egunak topatzea izan zen.

Non grabatu duzue laburmetraia?

Ekainaren 12an, 13an eta 26an grabatu genuen Zumarragako Gurrutxaga baserrian, Donostiako Gros auzoko zubian eta Donostiako bi pisutan. Oso egun gogorrak izan ziren, baina interesgarriak. Izan ere, lan honetan badakizu nola hasi, baina ez nola bukatuko duzun. B plana ez, Z plana ere behar izan dugu.

“Zinea atsegin dut eta idaztea barrenak husteko ariketa bikaina da”

Gustura al zaudete egindako lanarekin?

Beti dago zer hobetua, baina zein baliabide izan ditugun ikusita, biok pozik

gaude. Lan teknikoaren arduraduna Asier izan dela eta zuzendaritza artistikoaz biok arduratu gara esan beharra dago.

Igandean estreinatu behar duzue.

Donostiako Guardetxea lokalean estreinatu behar dugu, baina gutxienez Zumarragan ere eskaintzea gustatuko litzaziguke. Bestalde, lehiaketetara aurkezteko asmoa ere badugu. Nork daki...

Ez diguzu istorioaren berri eman.

Laburmetraiak gurasorik ez duten bi anaien istorioa kontatzen du. Nagusiak agintzen du eta bera gelditu da gurasoen diruarekin. Arrakasta, neska ederra... bereak dira. Gazteak anaiaren neskalaguna bahituko du dagokion dirua lortzeko eta bizimoduz aldatu ahal izateko. Ezin dut gehiago kontatu... Gaztelaraz grabatu genuen eta euskarazko azpiztituluen arduraduna Oihane Zabaleta izango da.

Gidoiak idazten jarraitu behar al duzu?

Bai, zinea atsegin dut eta idaztea barrenak husteko ariketa bikaina da.

Senegalgo haurrentzat ere lanean

Susi laburmetraia lehenago estreinatzeko asmoa zuten Biainek eta Okarizek, baina, hainbat gorabehera medio, atzeratu egin da. Izan ere, iazko urte bukaeran, Antziñe Biainek hilabete eman zuen Senegalen amaetxe batean laguntzen. "Laneko lau neska joan ginen, tartean Jone Goenaga herritarra. Jonek emaginekin lan egin zuen eta beste hiruok laborategian. Eraman dugun materiala egindako lana baino garrantzitsuagoa izan da. Bestalde, eman duguna baino gehiago jaso dugula esan beharra dago", dio Biainek.

Senegal hegoaldeko Djola etnia-koekin egon dira eta zoragarriak omen dira. "Paisaia izugarria da eta jendea oso abegikorra eta maitagarria. Barre asko egiten dute eta sekulako lasaitasuna eta barne bakea dituzte. Euretakoak sentiarazi gaituzte".

Toki zoragarria izan arren, arazoak ere badituzte eta horiek konpontzen laguntzera joan dira. "Zumarragako eta Donostiako ospitaleak emandako sendagaiak eta laborategiko materiala eramán ditugu. Oso ondo portatu dira eta badugu zer




eskertu. Lankideek emandako eskola materiala ere eramán dugu".

Lankide baten bitartez izan dira Senegalen. "Hura han izana da eta gutun bat bidali genuen joateko asmoa azalduz. Gustura hartuko gintuztela erantzun ziguten". Biainek eta bere lagunek Afrikan 35 urte eramatzaten moja batzuei bidali zieten gutuna. "Eskola bat sortzeko asmoz joan ziren eta bertako emakumeek amaetxea behar zutelako esan zieten, haurrak etxean edo zuhaitz batean izaten zituztela. Hori dela eta, moja haietako bat Espainiara itzuli eta emagin izateko ikasi zuen. Jendeak asko maite ditu, amaetxe

hau denbora luzean bakarra izan baitzen".

Horretaz gain, eskola ere badute. "Hezkuntza oinarritzkoa da, jasotzen ez duten haurrek prostituzioan edo aberatsen etxean lanean bukatzen baitute", dio Biainek. Hezkuntza publikoak ez ditu haur guztiak hartzen eta askok ez dute pribatua ordaintzeko baliabiderik. Norbaitek haur hauei laguntzeko asmoa izango balu, Antziñe Biainekin harremanetan jartzea besterik ez du.

KOLABORAZIOA



Andoni Salamero

Ekaitzari so

Ezer idazteko esan didate eta zer idatziko dudan pentsatzen ari naizela, ideiak burutik igaro ez eta egongelara abiatu naiz zantzu edo arrasto eske. Benito Lertxundiren azkenengo diska aukeratu dut, aspaldiko kanta: *Ekaitza*, eta hala entzunez, entzunez kanpoan tantaka, tantaka benetako ekaitza somatu dut eta leihora hurbildu eta euriari begira geratu naitzaio. Ez dakit zer duen zarra-zarra zoragarri honek, askok berau ikusi eta madarikazioka aritzen dira eta niri bedeinkapen oparia iruditzen zait. Zerutik lurrera erortzen ari da euria, oraingoan bortitz, lurra egun hauetan egon den lo sakonetik esnatuz. Zarra-zarra, tantaka zulatzen dira koska, ertz, txoko, txulo guztiak eta zeruak hitz egiten digu naturalki, zeharbiderik hartu barik, aurrez aurre gauzak esanez, tranparik gabe, guztia gardenduz eta garbituz, astun eta zamatsu gerta daitekeen giroa astinduz...

Egongela barruan Benito ari da: "ekaitzak, ekaitzak/ hostoak daramazki/ zuhaitzak bilutsirik/ negarra, negarra/heriotz usaia/ inguruan utzirik..." eta berean utzi dut, kantatzen, eta kanpoari so, hezetasun ttakunetan erreparatuz, "merkantzias" tren herdoildu-zaharraren ttikirri-ttakarra geldoaz gozatzen jarraitu dut eta gau sakon horretan galdu dira egunean zehar erditu, hazi, moldatu eta desitxuratu izan diren gogoeta asko eta asko. Hegan eta hegan ari naizelarik, eskilara hartu eta behera jaitziz kantari oriotarraren ahapaldien bufada sentitu dut, haize

zaflada baten antzera: "Gure basoko/ zuhaitz lehorrek/ oraindik irauten dute./ Lurraren babesak emango die itxaropenezko bizitza". Beti, lurra, babes eta abaro, magal epel-oparo gure gorputz-lurrarekin bat egiten, barru-zerutiarrarekin arnaskada bakoitzean, indar bizi-biziz aurrera jarrai dezagun eskatzen eta gu, lo, lur lehor-idor-sikua bezala, LO, horrexegatik tantaka datorren euri-txalaparta bizi hori da eskaintza atsegin, aldaketa baten iragarle. Bustiz doaz bazter orok eta kanpoa melatzen hasi eta barrua blaitzen zaidala igartzen dut: putzuak, itukinak, ur tanto txikiak, tantaiak... "ekaitza, ekaitza/ zure indarra/ ez da iraunkorra/ udaberria etorriko da/ berarekin loreak/ bizitza berri bat/ etorriko da / lehortuko dira malkoak/ haize leunak laztanduko ditu/ gure aurpegi penatuak".

Kantariaren azken notak zabaldu dira egongelaren izkin ezkutueta eta kalean, lainoen negarra antzeman dut, lainoen negar malkoak. Hurrengo kanta hasi da: "nere herriko neskatxa maite..." eta orduan konturatu naiz zer dela eta ekaitza, zer dela eta malkoak heriotza, aurpegi penatuak, jakina... bi ikasle ohiei, Idoiari, Aitziberri, gaur aita hil zaie, ekaitza hontzak, heriotzak, eramanda. Ekaitza, ekaitza malkoak eta tantanak begietan, ekaitza, ekaitza bihotz zapuztua erraietan, ekaitza, ekaitza utzi bakean udaberrian niri sinesten, loreetan, malkoak lehortuko diren zehaztuko ez den garai batean, ekaitza, ekaitza bizitza berrian.

www.megadenda.com

Fermin Calbeton. 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon. 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai. 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan

ramos
Bergara. 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx

targeta
megadenda
txartela

2006ko otsaila

Benita Landa: baikortasunaren eredu



Benita Landa Bizkaiko Berriz herritik etorri zen Zumarragara Artiz familiarentzat lan egitera oso gaztetan eta ia 80 urte daramatza dagoeneko bertan. Urte hauetan guztietan denetik ikusi du

eta asko sufritea tokatu zaio, baina 94 urterekin etxeko lan guztiak egiteko gai da oraindik eta egun guztiak sekulako ilusioz bizi ditu. Emakume eredugarria da benetan, bizipozaren adierazle.

Non jaio zinen Benita, zein familian?

Aitaren aldetik bere lau arreba eta anai bat bakarrik ezagutu nituen. Ezin dut aitari buruz ezer esan, 29 urterekin hil baitzen, nik 4 urte bete aurretik. bera ezagutu ez izana, bizitza osoan izan dudana

pena handia da. Etxean ama, anaia eta ni ginen, baina ama berriro ezkondu zen eta bost anaia-arreba gehiago izan nituen. Aitaren familiak beti asko maite izan gaitu guztioi eta harreman handia izan dugu, baina...

Ama berriro ezkondu aurretik, gorriak ikusiko zenituzten.

Aitona ere alarguna zen eta berarengana joan ginen, Zaldibarrera. Ama Amerikatik etorritako gizon batekin ezkondu zen eta bere baserrira joan ginen.

ZUEK BAI JAKIN!



Benita Artiz etxean bizi da aspalditik.

9 urte nituen eta ugazaitak goizeko 5etan esnarazten ninduen behiak zaintzera joateko. Behin, horretan nengoela, lokartu eta jipoitu egin nahi izan ninduen. Aitonarengana joan nintzen eta gertatu zena jakin zuenean, gu jipoituz gero azkar aitortzera joateko esan zion. Gerra garaian ama eskopeta batekin harrapatu zuten eta kartzelara eraman behar zuten, baina senarrak bere burua eskaini zuen eta bera eraman zuten.

Gerra heldu zenerako emakumea zinen jada.

1934an ezkondu nintzen, bi seme-alaba nituen dagoeneko eta gerra amaitu aurretik hirugarrena izan nuen, trenak hil zuena. Gerra garaian urtebete egon nintzen senarrari buruz ezer jakin gabe. Nik ez nuen alde egin nahi izan. Izan ere, jendeak alde egiten zuenean, euren etxeak ireki eta altzariak-eta eramaten zizkieten. Militarrek jarrera txarra zuten emakumeekin, senarrak ekartzera behartzen gintuzten.

Noiz eta nolatan etorri zinen Zumarragara?

Artiz familiaren Donostiako etxean zerbitzari lan egitera etorri nintzen, 18 urterekin. Londres hotelaren parean bizi ziren. Abuztuan Zumarragara etortzen ginen. Saski eta orrazi lantegia zuten eta nire senarra zenak orrazi fabrika lan egiten zuen. Hala, ezagutu genuen elkar. Burgosen jaiotakoa zen, baina 6 urterekin hona etorritakoa.

Artiztarren etxean Maria Cristina Espainiako erregina ezagutu omen zenuen.

Egungo erregearen amonari bazkaria zerbitzatu nion, bai. Artiz aita liberala zen, baina emaztea monarkiaren aldekoa. Espainiako errege-erreginak Donostiara etortzen ziren eta 1929an eta 1930ean Artiztarren etxean izan ziren.

Aurrerago Renfen lan egin zenuen, langazain.

Gerraren ondoren izan zen.

1940an hasi nintzen, duela gutxi hil den Gregorik utzi zuenean, eta 1952a arte egon nintzen bertan. Sukaldea zuen txabola bat zegoen Rojo y Zaldúa enpresako bulego ondoan eta bertan familiarentzat bazkaria egiten nuen. Gainera, garai hartan ez ziren egun bezainbeste tren pasatzen eta jostelanak egin nituen. Lan horri esker dut pentsioa, baina trenak alaba eraman zidan. Bizitza gogorra da. Garai hartan razionamendua zegoen: Osinaldenean txokolatea ematen zuten eta Pasionaria deitzen genion emakumearen dendan, Kalebarrenen, kafea. Alabak txokolatea eskatu zidan eta dagoeneko nahikoa eman niola esan nion. Senarrak umea txokolaterik gabe ez uzteko esan zidan. Joan egin behar nuen, baina atera heldu nintzenean alabak musu bat emateko esan zidan. "¡Qué pesadita eres!" esan nion, orduan eman zidan azken musua. Hala dira gauzak... Askotan pentsatzen dut, nondik aterako ote dut nik indarra? 94 urte ditut eta gauzak egiteko eta bizitzeko gogoia.

Zergatik utzi zenuen Renfeko lana?

Alaba nagusiak, ni lanean nongoen bitartean, etxeko lanak egin behar zituen. Josten ikasi nahi zuela esan zidan eta lana utzi nuen.

Ordurako seme-alabak koxkortuak izango ziren...

Txikienak bi urte zituen orduan. Orain zaharrenak 70 urte ditu. Borroka latza izan zen, baina seme-alabak aurrera ateratzea lortu nuen. 65 urterekin kobratzen hasi nintzen, baina senarra hil zenean nire pentsioa kendu zidaten. Orain, berriro kobratzen hastea lortu dugu.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Denetik: jostea, puntu-lanak egitea... Orain mantelak eta bizilagunen haurrarentzat txaketatxoa egiten ari naiz. Bestalde, telebista ikustea ere atsegin dut. Batez ere, pilota partidak, *Rex* eta kutxen lehiaketa. Kalera ere egunero joaten naiz: eguraldi ona egiten duenean Etxeberrira, txaletetan bizi den nire ahizparengana... Erosketak ere nik neuk egiten ditut. Jendea harritu egiten da bakarrik bizi naizelako. Senarra hil zenean askok gogaitu egin ninduten: "orain bakarrik..." esaten zuten gupidaz. Inongo laguntzarik ez duena

ZUEK BAI JAKIN!

Benita Landa, beltzez, bere anai-arrebekin.



dagoela bakarrik esaten nien. Ahal dudan bitartean neure kabuz moldatzen saiatuko naiz. Senarra hil zenean, Mari Carmen ni ere berehala joango nintzela esan zioten...

Orain lasaiago biziko zara.

Duela bi urte arte pareko etxebizitzan bizi zen anaia eta senarra zaindu behar izan nituen. Hilabete gogorak izan ziren. Beste arrebak ere etortzen ziren bera zaintzera, baina anaiak nahiago zuen ni joatea. Izan ere, ni lasaiagoa naiz. Senarra haserre-etu egiten zitzaidan, arrebak gehiago bazituela

“Askotan pentsatzen dut, nondik aterako ote dut nik indarra? 94 urte ditut eta gauzak egiteko gogoia”

esaten zidan. Anaia nuela eta zaindu egingo nuela esan nion eta hala egin nuen hil zen arte. Orain lasai nago: ahal nuen guztia egin nuen bere alde. 19 hilabetetan senarra, semea eta hiru anai-arreba hil zitzaizkidan.

Nondik ateratzen duzu indarra Benita?

Ni ere txunditu egiten naiz. Orain primeran bizi naiz. Familiako guztiak nitaz

izugarri arduratzen dira. Bakarrik bizi naiz nire erara bizi nahi dudalako. Ez nintzateke beste etxe batean bizitzera ohituko.

Josi egiten duzu, otorduak prestatzen dituzu, erosketak egin... Hori guztia egiteko gorputz osoa ondo behar duzu.

Hiru hilean behin tentsioa begiratzera joaten naiz, baina ez dut sendagairik hartzen. Medikua txundituta dago, berarengana bakarrik joaten naizelako. Behin analisiak egitera joan eta medikua berria zen, ordenadorean 92 urte nituela eta sendagairik ez nuela hartzen ikusi zuenean eta bakarrik joan nintzela konturatu zenean, seko txundituta gelditu zen.

Kalean ere zer edo zer esango dizute.

Luis Mari parrokoa asko pozten da ikusten nauenean. 94 urte bete nituenean senarrarentzat eta semearentzat meza jartzea joan nintzen eta bi musu eman zizkidan.

Egia esan, oso pozgarria da zu ikustea, bizipoza ematen du.

Baikorra eta lasaia naiz. Senarra gaixo egon zenean ere, ni neu moldatu nintzen. Gauzak patxadaz egiteak ez du esan nahi sufritzen ez denik. Nire anaia oso gaizki zegoela ikusi nuenean, arropa aldatzeko baimena eskatu, arropa aldatu eta ambulanzia deitu nuen. Hori guztia lasaitasunez egin nuen, ez diot gaixoari larritzeko arrazoirik ematen. Nahiz eta sufritu, urduri jarzteak ez du ezertarako balio.

Herri Aldizkaria
Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84




SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

Interneten ere kantari Xabier Barriola

Kantu Afariko abestien letra, partitura eta do



Xabier Barriolak inor gutxi bezala maite du musika. Hala, ibilbide oparoa osatu du. Bestek beste, Santikutz eta Goiargi abesbatzak zuzendu ditu eta Kantu Afarian hasiera-hasieratik parte hartu du. Orain, urte hauetan guztietan egindako lana web orri batean txertatzen ari da: www.euskalnet.net/kantu.afaria. Bertan 120 abesti ingururen letrak, partiturak eta doinuak aurki ditzakegu. Baita Kantu Afarian abestu diren kanten zerrenda ere.

Nolatan halako musikazaletasuna?

Txikitatik. 6 edo 7 urterekin Legazpiko parrokiako haur abesbatzan hasi nintzen abesten. Gero, amak bultzatuta, solfeo eta piano pixka bat ikasi nuen. Ondoren, Legazpiko bandan hasi nintzen klarineta jotzen. 14 urterekin elizkizunetan organua jotzen nuen. Azterketei nien beldurratik, ez nituen ikasketak arautuak egin. Izan ere, epaimahai baten aurrean egin behar ziren. Beranduago solfeo ikasketak egin nituen, urte bakarrean, eta 5. maila bitarteko piano ikasketak ere osatu nituen.

Bandaz gain, zein taldetan aritu zinen?

14-15 urterekin Urretxuko berbera talde bateko kideek eurekin jotzeko eskatu zidaten. Bergarako talde batekin ere jo nuen. Hori guztia abesbatzen mundua utzi gabe egin nuen. Bai abesbatzetan eta bai musika taldeetan gazteena nintzen.

Abesbatzetako lana oso gustuko duzu.

26 urterekin-edo Santikutz abesbatzaren ardura hartu nuen. Hori dela eta, zuzendari lanerako prestatzen hasi nintzen: teknika bokala, solfoea, armonia, kontrapuntua, kantuko erdi mailako ikasketak...

egin nituen. Bakarleri gisa lehen pausoak ere orduan eman nituen.

Noiz eta nolatan etorri zinen Goiargira?

Bixi Garziandiak deituta etorri nintzen, abesbatza mundutik ezagutzen genuen elkar. Urte betez Santikutzeko eta Goiargiko zuzendaria izan nintzen, baina gehiegitxo zen. Hori dela eta, Santikutz utzi nuen. Garai hartan hobea zelako hautatu nuen Urretxu-Zumarragakoa, nahiz eta erabakiak legazpiarrei ez zien grazia handirik egin. 10 bat urtetan izan nintzen Goiargiko zuzendari.

oier Barriolarekin

nua jarri ditu web orri batean

Beste lan batzuk ere egingo zenituen.

1985ean antzinako musika jorrazten duen Peñafloresta Kapera sortu zen eta arlo hori jorrazten hasi nintzen. Musika mota hori lantzen duten hainbat taldetan izan naiz. Bestalde, Orfeon Donostiarra, Andramari, Hodeiertz eta Eskifaia abesbatzetan ere abestu dut, eurek eskatuta, errerfortzu gisa. Azken 10 urte hauetan Urretxu eta Zumarragako txistulari taldeentzat moldaketa lanak egin ditut eta Kantu Afarian ere parte hartu dut.

Kantu Afariaren inguruko web orria ere sortu duzu.

Duela hiruzpalau urte, erdi txantxetan, kantuafaria.com web orria sortzeaz hitz egin genuen. Kontu honetaz ideiarik ere ez nuen, baina erraza zela esan zidaten eta hiru abesti sartu nituen frogara gisa. Urtetan hiru horiek bakarrik egon dira. Aurten, ordea, aurrera egitea erabaki dut.

Lan handia izan al da?

Hasteko, aurretik eginda dagoena begiratu dut. Interneten abesti askoren letrak daudela ikusi dut, baina zenbaitentzat hori ez da nahikoa. Nik neuk, doinua entzuterik ez badut ez dut abestia zein den asmatzen askotan. Kantu Afarirako egindako lana dela eta, 80 bat abestiren letra, partitura eta akordeak prest nituen. Horiek izan ziren Interneten jarri nituen lehenak.

Zurearen tankerako Web orri gutxi daude, orduan.

Hala da. HABEK bakarrik du antzerako zer edo zer. Nire orriaren diseinua ez da ona, baina eduki aldetik merezi duela uste dut. Web orrien diseinu mundua eza gutzen duen jendearen eskaintza jaso dut nirea hobetzeko eta ea beraiek irakatsitakoarekin hobetzerik dudana.

Zure Web orriaren ekarpen nagusia erabilgarritasuna da, beraz.

Une honetan 120 bat abesti daude

hiru formatutan: letra, partitura eta akordeak. Hala, edozein musikarik edo taldek abesti hauek jotzeko behar duen oinarria du. Bestalde, musika eskoletako ikasleek kanpoko musika soilik jotzeko aukera izaten dute eta Web orri honek bertako melodiak eskaintzen dizkie.

Zer gehiago aurkitu dezakegu atarian?

Gabonak izan direla eta, abestiak bi ataletan banatuak daude: batean Gabon kantak eta bestean betiko doinuak. Beste atal bat Urretxuko Kantu Afariari buruzkoa da. Bertan urte hauetan abestu ditugun abesti guztien zerrenda eta abesti bakoitza zenbatetan kantatu dugun ageri da.

Zure lana ez zenuen oraindik bukatutzat emango...

Presara gabe baina etengabe ari naiz. Ez dut uste sekula lan hau bukatutzat emango dudunik. Izan ere, beti egongo da abestiren bat sartzeko.

Zer esan dizute zure lagun musikariek?

Web hau ez dut oraindik zerbitzarrietan-eta ezagutzera eman. Dena den, aurrerago promozionatzeko asmoa dut. Orain arte 500 bat lagun sartu dira, batzuk aholku eske. Gehienek gustatu zaiela aipatu didate. Bestalde, eskola publikoaren www.ikasguay.com-en, haurrentzako interesgarriak diren web orrien zerrendan ageri da eta, HABEkoarekin batera, azpimarratu egin dute.

Bukatzeko, beste zer edo zer aipatu nahi zenuke Xabier?

Kantu mugimendua oso indartsu dagoela aipatu nahi dut. Jendea kantatzeko irrikitan dago. Donostian, esaterako, astero elkarteren batean abesteko biltzen den jendea dago eta hilean behin Alde Zaharreko kaleetan kantatzen dute. Interneteko bilatzailean Kantu Afaria idazten baduzu, emaitza asko ageri dira. Dena den, Urretxukoa bezalakoa, inon ez.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



Lanbica

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



KABIA
JATETXEA

Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

Gorka Quevedo: basam

Korrikalari zumarragarrak Saharako Maratoia



Gorka Quevedok Saharako Maratoia korrituko du datorren asteartean. Zumarragako korrikalaria larunbatean irtengo da Madrildik eta astebete emango du Saharan, errefuxiatuekin bititzen. Quevedo korrikalari trebatua den arren, sei aldiz egin du Behobia-Donostia, bitan Donostiako maratoia eta beste bitan Aizkorrikoa, honakoa erronka berria du.

Noiztik korrika egiten duzu, Gorka?

Aspalditik, baina Behobia-Donostia 1997an egin nuen lehenengoz. Garai hartan korrika gutxi eta parranda asko egiten nuen, baina pixkanaka hobetzen ari nintzela ikusi nuen eta... Hasieran astean hiru egunetan entrenatzen nuen ez oso serio, gero hirutan serio, lautan, bostetan... Gainera, oraindik hobetzeko adinean nagoenez... Gure gorputzaren, ahalmeneren, muga aurkitzearen egiten dugula esango nuke.

Zeintzuk dira orain arte egin dituzun lasterketa garrantzitsuenak?

Lehen maratoia 23 urterekin egin nuen, bat edo bi bakarrik izango ziren gazteagoak. Gero mendiko maratoia egin nuen lehenengoz. Errepideko bi maratoi egin ditut, 2003an eta 2005ean, eta markarik onena 3 ordu eta 26 minutukoa dut. Aizkorriko maratoia ere bitan egin dut, 2004an eta 2005ean, eta markarik onena 5 ordu eta 54 minutukoa dut. Behobia-Donostia, berriz, sei aldiz egin dut.

Ez duzu gutxi entrenatuko...

Igandean, bidegorrira joan beharrean, krosetara joaten gara. Atseginagoa da eta, gainera, geure buruari gehiago eskatzen diogu. Maratoia prestatzeko maratoi erdi pare bat egiten ditut, Aizkorrikoa prestatzeko bizpahiru mendiko lasterketa...

Urte osoa korrikan ematen al duzu?

Aizkorrikoa maiatzean denez eta Donostiakoa azaroan, urte hasieratik maiatzera lehen fasea da eta Urretxuko festen ondoren azarokoa prestatzen hasten naiz. Udan eta abenduan asko kostatzen da entrenatzea.

Mortuan lasterka

n parte hartuko du asteartean

Nolatan erabaki duzu Saharako maratonia egitea?

Aspalditik nuen gogo. Alde bate-tik kirol erronka da eta, bestetik, herri sahararra ezagutzeko aukera ematen du. Izan ere, lasterketak Tindufen erbesteratutakoen kanpamentuak zeharkatzen ditu eta kanpamentuan bertan, familiekin, hartuko dugu ostatu. Kirolari dagokionez, oso erronka gogorra da: beroarengatik eta basamortuko haizearengatik, batez ere. Antolatzaileek burua estaltzeko zapia eta eguzkitako betaurrekoak eramateko esan digute. Bi kilometro eta erdi ura emango duten arren, norberak berea eramatea ere gomendatzen dute. Psikologikoki ere lasterketa gogorra da, ibilbidea ia zuzena baita eta paisaia ez baita batere aldatzen.

Nork antolatzen du lasterketa?

Herri sahararrarekin elkartasuna helburu duen nazioarteko elkarte batek antolatzen du. Maratoia proba nagusia da,

“Tindufen
erbesteratutakoen
kanpamentuan
bertan, familiekin,
hartuko dugu ostatu”

baina 5, 10 eta 21 kilometroko lasterketak ere badaude. 15 herrialdetako lagunok parte hartuko dugu. Lasterketa beti otsailaren 27aren inguruan izaten da: errepublika sahararraren independentzia egunaren inguruan.

Maratoia egitera joan behar den besterik ezagutzen al duzu?

Ez, baina badakit iaz 6 edo 7 euskaldun joan zirela. Ingurukoak apur bat txundituta daude Saharara joan behar naize-

lako, baina ez zaituzte bertan noraezean uzten. Antolakuntza oso ona da: ibilbidea markatua dago, ura ematen dute, gure atzetik autoa joango da... Gogorra izango da, baina gogorragoa da bertako errefuxiatuen bizitza.

Eurak ezagutzeko asmoa ere baduzula esan duzu.

Larunbat honetan irtengo gara Madriletik eta martxoaren 3an itzuliko gara. Bertako jendea ezagutzea oso garrantzitsua da niretzat. Euren aldeko lasterketa da eta parte hartzaile bakoitza familia batekin izango da bere dendan.

Nola prestatu duzu lasterketa?

Neure kontu egin dut prestaketa, beti bezala. Ez nekien nola prestatu, baina asfaltoko maratoi baten eta mendiko baten arteko zer edo zer espero dudanez, bietan ibili naiz.

Saharako maratoiaren ondoren, zer?

Aizkorrikoa eta Donostiakoa egiteko asmoa ere badut, baina nahiago dut pausoz pauso joan. Apur bat beldurtuta nago, ez baitakit ondo nola nagoen. Izan ere, iaz Donostiakoa oso nekatuta bukatu nuen, batez ere psikologikoki, eta abendura arte oso gutxi entrenatu dut. Dena den, azkenaldian gogor aritu naiz eta Andoni Ormazabalek ondo nagoela dió. Gainera, nahiago dut joan eta porrot egin, etxean penaz gelditu baino.

Azken urteotan hainbat herrialdetan izan zara elkartasun lanetan, Sahararaz gain, beste nonbaitera joateko asmorik ba al duzu?

Asmoa badut, baina zenbateko oporraldia dudana ikusi behar... Nire ametsa Palestinara joatea da, baina ingeles maila altua eskatzen dute. Hori dela eta, errazagoa da Hego Amerikara joatea. Berrero Chiapasera joatea ez legoke gaizki, hauteskunde urtea baita.




HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA



Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



Miren Castillo

Urretxuko Kultura teknikaria Azkoitian jaio zen 1963an. Ama azkoitiarra eta aita urretxuarra ditu. "Nire ama urretxuar batekin ezkondu zen, baina bere lau ahizpa ere urretxuarrekin ezkondu ziren. Hala, harreman handia izan dut beti herriarekin. Osaba-izebak eta lehengusuak hemen nituen eta Urolako treneko *ohorezko bazkidea* nintzen".

Miren Castillok Azkoitiko mojen ikastetxean hasi zituen ikasketak. "Gero Azpeitiko institutura joan ginen. Xapuk eta Xakelak, hori ibiltzen ginen, bakoitza berea defendatzen. 17 urterekin, berriz, Donostiara joan nintzen, Zorroagara, psikologia ikastera. Gero, beste hiru urte ere eman nituen pedagogia ikasten".

Hurrengo helburua lana aurkitzea zen, noski. "1986ko urtarrilean autobusean etorri nintzen orduan nire mutil laguna zenarengana eta Elizburu harategian kultur koordinatzailea behar zela irakurri nuen. Nahi nuena horixe zela konturatu nintzen. Izan ere, lan horrek bertara bizitzera etortzeko aukera ematen zidan. Buru-belarri aritu nintzen ikasten eta lanpostua lortu nuen". Mirenek estreinatu zuen Kultur Etxea. "Hasieran bakarrik lan egiten nuen. Irene 1990ean hasi zen, amatasun baja hartu nuen, ni ordezkatzera etorri zen eta, azkenean, geratu egin zen. Ondo moldatzen gara, ezberdinak ere bagara".

Miren Castillok asko atsegin du bere lana. "Ideia eta egitasmo berrieekin lan egiten dugu eta, normalean, kultur munduan lan egiten duen jendea ilusio handiz jarduten da. Bestalde, jendearen zaletasunekin eta aisialdiarekin lan egitea oso esker onekoa da. Baita gazte askoren ametsak bete direla ikustea ere".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Mojetan ikasten nuen eta misiolaria izan nahi nuen. Madagaskarrera joan nahi nuen, hain zuzen ere. Izan ere, Azkoitiko lekaiame bat bertan zegoen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Baserrri giroa eta mendia asko atsegin ditut. Lasaitasuna, haizea hartzea eta lorak zaintzea. Senarraren familiak Ezkion baserria du eta ni loren arduraduna naiz.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxuko Kultur Etxetik Zumarragako plazara eta Zumarragako plazatik Kultur Etxera oso ondo bizi naiz.

-Urretxuko Kultur teknikaria Zumarragako plazan bizitzea ere...

Askotan entzun behar izan dut eta ni azkoitiarra naizela erantzuten dut.

-Zuen laneko onena eta txarrena?

Onena jendearekin lan egiten dela eta horrek asko aberasten duela. Okerrena, instituzioak berarekin dakarren burokrazia.

-Diru askorekin, zer ekitaldi antolatuko zenuke?

Inor ekarri baino, herriko taldeen baliabideak eta azpiegiturak hobetuko nituzke.

-Artista asko ezagutuko zenituen, jatorrak al dira?

Gehienak bai, baina batzuk nahiko petralak suertatu dira.

-Herriko txoko bat?

Urretxuko plaza eta Goiko Kale.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Ilegorriak ere bai.

-Egindako azken oparia?

Iparragirre Saria irabazi dutenen liburuak.

-Eta jasotakoa?

Belarritako batzuk.

-Data bat?

Otsailak 11, Lourdesko amaren eguna: Nire izena Miren Lourdes da, senarra garai horretan ezagutu nuen, egun horretan ezkondu ginen eta seme-alabak Lourdesko Ama Ikastolara joaten dira.

-Neska eta mutil izen bana?

Elene eta Gorka.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV eta Hitza. Asteburuan Berria eta El Mundo ere bai.

-Gustuko telebista saioa?

Etxean informatiboak ikusten ditugu gehienbat.

-Bereziki gorroto duzuna?

Bihotzeko saioak.

-Liburu bat?

García Marquezen "100 años de soledad"

-Filme bat?

"Los chicos del coro" asko gustatu zitzaidan.

-Soinu bat?

Itsasoarena.

-Usain bat?

Larrosarena.

-Janari bat?

Amak egindako edozein saltsa.

-Ura ala...

Garagardoa ere gustuko dut.

Etxean bezala

Pagoeta Haur Eskola



Matrikula epea: martxoaren 1etik 15era

Informazio gehiago nahi izanez gero, 605 72 85 76 telefonora deitu

Opel Astra



Altamira lantegiak
Goierriko zerbitzu ofiziala
Matxinporta, 4 - URRETXU - ☎ 943 72 33 71